

ALKATETZAREN DEKRETUA 20191126/054

GAIA:	EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA
ERABAKIAREN DATA :	2019.11.26
ERABAKIAREN ZENBAKIA:	20191126/054

Elduaingo Udalak, organo jardulearen bidez, eta goiko laukian adierazitako bilkuran, hemen erantsitako akordioa hartu zuen. -

Kontuan harturik Udalak prestatutako 2020ko urtealdiari dagozkion Zerga eta Prezio Publikoen Egutegi Fiskala:

- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zerga, borondatezko epea:
2020ko martxoaren 7tik apirilaren 7ra.

Kargu data: 2020ko apirilaren 7a.

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, borondatezko epea:
2020ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era.

Kargu data: 2020ko ekainaren 30a.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, borondatezko epea:
2020ko urriaren 1etik azaroaren 10era.

Kargu data: Azaroaren 10a.

Beraz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 f artikulua ematen didan ahalmenarekin, zera

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA: 2020. Urteko egutegi fiskala onartzea.

BIGARRENA: Ebazpen hau Udaletxeko Iragarki taulan eta www.elduain.eus atarian argitaratzea.

Elduain, 2019ko azaroaren 26a.

Alkatea,
Oihana Amundarain Zubillaga

Nire aurrean,
Udal idazkari-kontu-hartzailea,

Maria Pilar Garmendia Miguel,